

**EUKARISTIA, ERREIÑUAREN SAKRAMENTUA**

Azalpen onetarako, Alkartasun Barriko eukaristia textoak dagozan eran artzen ditut. Ez dot galdetuko orain zelako aldakuntza bidea izan daben, edo Jesusek berak zelako berbak esan izan eikezan eta zelan ulertu ete ebazan bere egiteak eta berari jazoriko gertaerak. Olako itaunak bidezkoak dira. Baiña, orain, Alkartasun Barriko textoak, bearbada fede eta liturgi prozesu baten buruan, euren zentzun eta esangurea dauke Alkartasun Barriko kontextoan. Jesusen inguruan eta Jesusegandik (Jesusen Espiritutik) sorturiko Eleizearen kontzientzia ispillatzen da texto orreetan. Zentzun eta esangura au batzea da nire asmua.

1. Jaungoikoaren erreinua dago Jesusen bizitzaren muiñean. Au da bere gai osoa, onek betetzen dau, onegaitik bizi eta ilten da. “Joan atxillotu ebenean, Jesus Galileara joan zan Jaungoikoaren barri ona iragartera. Olan iñoan: Bete da epea eta ur dago Jaungoikoaren erreinua. Biotz-barritu zaiteze eta siñestu barri ona” (Mk 1,14-15;). Barri onak Jaungoikoak bere erregetza gauzatuko dauala esan nai dau, eta au da Jesusek iragarten dauana: “Jaungoikoaren erreinuaren barri ona iragarten eban eta erriko gaitz eta gaisotasun guztiak osatuten” (Mt 4,23; ikusi 9,35; 10,7-8; 24,14). Jaungoikoaren erreinua ez da teokrazia, gizaki erlijiosoan aginpidea, istorian, eta biblia istorian bertan ezaguna. Jaungoikoaren erreinua au dogu: Alkartasun Zaarrean zear antsiz eskaturiko aginpide zuzena eta